



Alderdia Bizi

ALDERDI EGUNA 2026

2026.09.27 | Igandea | Forondan

Elene Bilbao EGIkidearen hitzaldia

Egun on alderdikideok!

Egun on Euzko Gaztedi!

Egun on, Foronda!

Oin dala 49 urte ospatu genuen lehenengo Alderdi Eguna, Aralarren. Horregatik, aurtengoa inoiz baino bereziagoa dogu. Seguru nau hemen gauzen askorentzat Alderdi Eguna egutegian markatzen dogun egun bat baino gehiago dala. Huts egin ezin dozun horietako egun bat: lagunekaz eta familiagaz berriz alkatzeko egun bat, elkarrekin egoteko, egungo egoeraz hitz egiteko, gozatzeko eta ospatzeko egune da.

Nik be txikitatik ez dot hutsik egin, eta urtero bueltatzeko ilusio bardinegaz jarraitzen dot. Urtero etxeko balkoian ikurriña imini, Lezaman autobusa hartu, hona heldu eta familia eta lagunekaz topo in. Etxean zauzela sentitzen dozun sentsaziño hori.

Familiaz ari garela, gertu dekodaz nire bi amomak, ziur nago ez deuriela detallerik galduko. Eta Aitite Santi gogoratzen dot. Hemen egongo bazan ziur nau gaur gutaz harro egongo zala, hainbeste gizon eta emakume egin zeurien bidea guk geuk egiten jarraituko dogulako ikusita. Aralarren elkartu ziren horien bideak, gaur egun Forondan jarraitzen deuelako. Katea ez da eten! Baina hona ez gatoz bakarrik igandea pasatzera. Nondik gatozen eta urte hauetan eraikitakoa eta oraindik eraikitzeko dekogun guztiaz jabetzera gatoz. Izan be, zelako zortea dekogun herri honetan jaio izanaz! Zer esanik ez emakumea izanda. Aipamen berezia egin nahi dot merezi eben eta errekonozimendua izan ez daben emakumeei. Orain guri tokatzen jaku, eta horretarako gure bizitzei buruz bardintasunez eta askatasunez bizi, lan egin eta erabaki ahal izan behar dogu!

Asteburu honetako EGiren kanpaldian Euskal Selektzioen inguruan aritu gara. Aitor Estebani eta Lehendakariari bi kamiseta oparitu genienzkien atzo. Eta gaur, hemen, ozen esaten dugu berriro ere gure selektzio bakarra berdea dela. Gurea Euskal Selektzioa dela!! Eta ozen esaten dugu baita ere, kirol desberdinetan euskal selektzioek nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzearen alde lan egin duen alderdi bakarra gurea izan dela. Gogoratu Bildu abstenitu egin zela azken pilota eta surf selektzioen ofizialtasunaren lorpenean.

Bidea ez da erraza, baina apurka apurka ofizialtasunak lortzen ari gara.

Gurea, berdea. Guk, ofizialtasuna!



Alderdia Bizi

ALDERDI EGUNA 2026

2026.09.27 | Igandea | Forondan

Hala ere, badira ulertzen ez dabenak gure nortasuna, gure kultura propioa, eta gure hizkuntza propioak dekoguzela. Beste batzuen mehatxuen aurrean erronka asko dekoguz oraindik. Euskara erabiltzeko eskubide osoa edukiko duen herri bat; eta, bai, euskaraz ikasteko eta lan egiteko eskubidea izango dauen herri bat! Euskara, gure nortasunaren parte dalako! Gure hizkuntza dalako!

Eta, noski, zelan ez, etxebizitza duin eta eskuragarri bat edukiko dauen Euskadi bat. Zer esanik ez dago guretzat, gazteontzat. Gaur egun ez dekoguz errez emantzipatzea, baina badakigu Eusko Alderdi Jeltzaleak horren alde lanean gogor dauela.

Eta etorkizuna gazteok, gu gara. Zuori hitz batzuk zuzendu gura dotzuedaz. Badakigu gaur egun ez dala erraza gizartearekiko konpromisoa izatea; hare gutxiago alderdi politiko batean militatzea. Badirudi denok izan behar doguzala ideia bardinak eta portaera bardinak. Baina hemen gauden gazteok argi izan dogu ez doguzala korronteak jarraituko. Ez garela artaldearen parte.

Eta bai, batzuetan jasotzen doguzen kritikak mingarriak dire. Batzuetan azalpenak eman behar dozuz edo beste batzuetan errazagoa da isilik geratzea. Baina, EGIko gazteok ez dogu billurrik izan behar. Argi eta garbi daukagu nor garen! Gaur inoz baino gehiago argi erakutsi behar dogu Euzkadiren alde lanean jarraituko dogula, herri onen etorkizuna dala gure interes bakarra! EGI estilora, gu geurera!

Hauteskundeak hurbil dekoguz, garrantzitsua da bustitzea eta gure herrien alde lan egitea. Ez daukagu zertan konpromisoari beldurrik izan behar. Gazteok egoera aldatu nahi dogulako, eta etorkizuna eraiki nahi dogulako! Horretarako, gaur, gezurrak eta espekulazioa protagonista diren gizarte batean, garrantzitsua da ondo informatuta egotea. Ez gaitezen jauzi beste batzuen "hitz hutsetan". Politikak ere gazteak behar ditu. Lehendakari, Aitor, behar gaituzue eta guk zuek. Eta hemen eukiko gaituzue, badakizue. Uste dot argi dagoela, belaunaldi-erreleboa badago.

Honekin amaituko dot. Gazteok, gaur festa egune eta bihar, lanean jarraitu behar dogu, sinesten dugunaren alde eta, batez ere, billurrik gabe gazte izateko eta gauzak aldatu nahi izateko beldurrik gabe. Oraindik asko dekoguz egiteko eta emateko.

Gora Euzko Gaztedi!

Gora Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euzkadi Askatuta!